

BILBAO EKINTZA EPEL

IRAGARKIA

Bilbao Ekintza EPELen hutsik dagoen lanpostu bat betetzeko hautaketa-prozesuaren bigarren ariketaren behin-behineko kalifikazioa.

Kanpo sustapeneko eta marketineko teknikari izateko lanpostu 1 (euskarako nahitaezko 3. Hizkuntza-eskakizunarekin) betetzeko hautaketa-prozesua epaitzeaz arduratu den epaimahaiak honako hau xedatu du martxoaren 2an egindako bileran:

Lehenengoa.- Oposizioaren BIGARREN ARIKETAN GAI izan diren izangaiek lortutako behin-behineko kalifikazioa onestea eta jendaurrean jartzea, deialdiaren oinarrietan jaso den ariketako proba gainditu dutelako. Zerrenda iragarki honi erantsi zaio, eta baztertu egin dira egindako proban EZ GAI diren pertsonak.

Bigarrena.- Kalifikazioaren aurkako erreklamazioak telematikoki aurkeztu ahal izango dira ope@bilbaoekintza.eus helbide elektronikora idatziz edo aurrez aurre Bilbao Ekintzaren bulegoetan (Nafarroa kaleko 5. zenbakiko 2. solairua), bost egun balioduneko epean, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita; hau da, 2023ko martxoaren 10ean amaituko da epea.

Hirugarrena.- Bigarren ariketako behin-behineko kalifikazioan GAI suertatu diren pertsonen **dei egiten** zaie oposizio-faseko **hirugarren ariketa (gaitasunen ariketa) egin** dezaten. Ariketa hori nahitaezkoa eta ez baztertzaila izango da, jarraian adierazten den egunean, orduan eta lekuan, NANA aurkeztu beharko dute, baita idazteko tresnak ere (2 zenbakiko arkatx biguna, borragoma eta zorrozkiola).

Eguna: **asteazkena, 2023ko martxoaren 15a**

Ordua: **10:20**

Lekua: **Turismo Bulegoa** (beheko solairua), Plaza Circular 1, 48001 Bilbo, ate nagusiko sarbidedetik.

Laugarrena.- Bigarren ariketako behin-behineko kalifikazioan GAI deklaratu diren izangaiei **jakinarazten zaie** hirugarren ariketaren edukia eta zuzentzeko irizpideak (kasu praktikoa) honako hauek izango direla:

- a) Hirugarren ariketa hau nahitaezkoa da, eta ez baztertzaileria.
- b) Laneko gaitasunen inguruko test bat egin beharko da.
- c) Gehienez 10 puntu emango dira, eta ez da beharrezkoa izango gutxieneko bat lortzea gairiditzeko **(ez da baztertzaileria)**.
- d) Testaren bidez, honako faktore hauek ebaluatuko dira lan-eremuan (arlotako bakoitzari emango zaion puntuazioa honako hau izango da):
 - Pertsona barruko arlotako: 2 puntu.
 - Pertsonen arteko arlotako: 2 puntu.
 - Zereginen garapen-arlotako: 2 puntu.
 - Ingurunearen arlotako: 2 puntu.
 - Gerentzia arlotako: 2 puntu.
- e) Ariketa egiteko, izangaiek NANA eta idazteko tresnak (2 zenbakiko arkatza biguna, borragoma eta zorrozkiola) aurkeztu beharko dituzte.

Bilbon, 2023ko martxoaren 3an.

EPAIMAHAIKO IDAZKARIA
ROSA ANA YURREBASO SESTAFE

Bigarren ariketaren behin-behineko kalifikazioak

BE2018-0003
KANPO SUSTAPENeko ETA MARKETINEKO TEKNIKARI
TÉCNICO/A DE PROMOCIÓN EXTERIOR Y MARKETING

NAN / DNI	Lehenengo abizena Primer apellido	Bigarren abizena Segundo apellido	Izena Nombre	Guztira Total	
*891***1R	ARBE	IRIONDO	ELIXABETE	20	APTO/A